

Hitzen ondoeza.
J. Sarrionandia

Liburu honetaz gehien gustatzen zaidana irakurlearekiko zabaltzen duen dialektika da. Bueno, baldin eta irakurlea ez baldin bada “nik-dena-irensten-dut-batez-ere-Sarrionandiak-idatzia-bada” belaki horietako bat. “Hiztegi” eder eta interesgarri hau iruzkin eta sentsazioz beteta dagoela esan nahi dut, eta irakurleak horiekin bat egin dezake ala ez, horiekin komulga dezake ala ez, baina ez Sarrionandiaren edo Joxe Moxeren liburua delako, baizik eta beti horrelaxe interaktuatu behar delako, azken finean literaturaren eta kulturaren helburuetako bat horretan datza, hau da, ez dugu irakurri behar asimilatuak izateko, geure ikuspegi, iritzi, eta abarrak indartu eta aberasteko baizik, gure irakurketen xede diren egileengandik ailegatzen zaizkigun irizpide eta pentsamenduak iragaziz. Niretzat liburu honek bokazio unibertsal handia du, eta planetako edozein hizkuntzatan primeran ibili beharko lukeelakoan nago, hilkorrik gehienak mugitzen direneko horizontaltasunaren ildo arrunta zeharkatzen duten kalitatea eta perspektika eta sakontasuna dituelako, zeina, bestalde, bere buruari aprezio egiten dion edozein idazleren betebeharrak nagusienetako bat baita. Eta Sarrionandiak liburu honetan bere buruari aprezio egiten dio. Abeze literario honetan proposatutako “hitz” bakoitzetik abiatuta liburuarekiko dialektika bat planteatzea txit interesgarria eta “super” dibertigarria izango litzateke. Eta alde horretatik, liburu irekitzat jo daiteke zeren egilearen ikuspuntua beti proiektatzen baita dialektika horretarantz, zeina ongi prestatutako edozein irakurle bizkorrek beregana dezakeen, eta horrela, liburuaren irakurketaz are gehiago gozatu. Anekdotak modura, soilik, ez nago bat ere ados Sarrionandiak euskal itzulpenei buruz diotenarekin, “euskarara ekarritako itzulpen guztiak oso txarrak direla”. Beharbada, bera ez dago kortse batez irakurtzera ohituta (baina ziur gazteleraz bai, ohituta dagoela; esaterako, egile ingeles, franziar, aleman edo kurdu baten liburu bat gazteleraz irakurtzen duenean). Izan ere, itzultzea itzultzen den hizkuntzari kortse bat jartzea baita. “Harrera”ko hizkuntza grisago, uniformeago, “gatzgabeago” bilakatzen da itxuraz. Baina horrek ez du esan nahi itzulpena gaizki egina dagoela. “Hitzen Ondoeza” liburua ez da zaharregia. 1997. urtean argitaratu zela uste dut. Ordurako Bilduma Unibertsala oso aurreratuta zegoen eta euskararen inguruko argialetxe garrantzitsuek garai hartan jada ez zuten duin ez zen ezertxo ere argitaratzen. Mota horretako berrespenak egitea norberaren teulatuen aurka harriska aritzea da. Beharbada, Sarrionandia euskara “eroso” batean bizi da, bere burua arazorik gabe adierazteko balio diona baina aldi berean bat ere handinahia (hizkera aldetik) izan gabe. Izan ere, Sarrionandiaren idazkera ez da bat ere handinahia. Sarrionandiaren euskara bakun, argi, garden eta erretorika handirik gabekoa da, endredu sintaktiko handirik gabekoa... Bueno, hori aukera bat da. Haren aukera da, Sarrionandiarena, baina horrek ez du esan nahi “jarraitu beharreko bide bakarra” denik: bakuntasun, landatasun, gardentasunarena... Nire ustez, euskal kulturaren atal garrantzitsu bat ez ezagutzea da hori: itzulpengintzaren mundua eta gaur egun eskaintzen duen kalitate handia. Eta hori ikusten ez duena, pixka bat itsua dago. Noski, Sarrionandiaren liburuan aipamen literario asko egiten dira, baina gehintsuenak atzerriko egileenak izaten dira. Orduan, alemanez idatzitako liburu jakin bat irakurri nahi badugu, zer egin behar dugu? Gure bizitzako 8 urtez pasatuko dugu alemana ikasten, liburu “bat” jatorrizko hizkuntzan irakurri ahal izateko? Eta horrela egiten ez badugu, zer, gaztelerazko itzulpenen bat bilatuko dugu, ezta? Zeren euskarara egiten diren itzulpenak horren txarrak eta kaxkarrak direnez... Ezta? Noski, gazteleraz “kortse efekturik” ez da gertatzen. Bai zera, gaztelerara egiten diren itzulpenetan den-dena da super naturala eta jatorra. Arazoa gurea baino ez da, euskaldunona. Ia-ia artalde osoaren marmarra entzutea iruditzen zait:

“Ez ba, Sarrionandiak esaten badu euskarara egiten diren itzulpenak oso kaxkarrak direla, orduan horrek esan nahi du izugarri kaxkarrak direla!”. Tira, batzuek aitzakia gutxi behar baldin bazituzten euskarara egindako itzulpenak irakurtzeak berekin dakarren ahalegintxo (sariduna berau) egin beharrik ez izateko, orain Sarrionandiak egin duen berrespen horrekin esan daiteke batzuei “bandexan” jarri diela... Batzuetan neure buruari galde egiten diot noizbait utziko ote diogun kaiku-herri bat izateari.

Nolanahi ere, Hitzen Ondoeza liburu bikaina da. Eta ez Sarrionandiarena delako, baizik eta liburua berez bikaina delako. Eta gainera Sarrionandiarena da, bai. Eta bai liburuaz bai egileaz harro egoteko pisuzko arrazoiak dauzkagu!